

Bederatzi mila sagarrondo landatu ziren 2005ean

A. A.

ASTIGARRAGA

Sagardo berriari harrera ofiziala egin aurretik, hainbat erakundetako ordezkariak bildu ziren Astigarragako udaletxean. Han, Landa Ingurumenaren Garapenerako diputatu Rafael Uribarrenek azaldu zuen aurten sagardogintzara zuzendutako bederatzi mila sagarrondo izan direla Gipuzkoako hainbat lekutan. Diputatuak azaldutako datuen arabera, kopuru hori iazkoaren bikoitza da, eta Urola Kosta, Donostialdea eta Tolosaldea izan dira fruitu-zuhaitz hauetako gehien jaso dituzten inguruak. Sagarrondoak landatzeko lur-eremu egokiak bilatzen eta urteroko uzta bermatzen ahaleginduko direla esan zuen. Bestalde, Gasteizko Gobernuako Nekazaritza eta Arrantza sailburu Gonzalo Saéz de Samaniegori Tabakoaren Legearen inguruan galdetu zioten eta, sagardotegietan erretzea galaraztearen inguruan, sailburuaren erantzuna argia izan zen: «Sagardotegi bakoitzaren ardura da legearen irakurketa egin eta dituen betebeharrak zeintzuk diren zehaztea».